


Kontzertuak

● Urriaren 27an, ostiralez, **Tahures Zurdos**, **Delirium Tremens** eta **Danbak** kontzertua eskainiko dute Bilboko Plaza Berrian, gaueko 11etan hasita.

● Zornotzako 'Barrabas' areto berrian **O.K. Korralen** kontzertua izango da hilaren 28an, larunbatez, gaueko 11,30etatik aurrera.




● **Su ta Gar** euskal *heaveyek* kontzertua eskainiko dute Altzako Kultur Etxean asteartez, urriak 31.

● **Tahures Zurdos** Urretxuko frontoian arituko da azaroaren 3an, ostiralez, gaueko 10etatik aurrera.



Musika




LABOA ETA SALBATZAILEA

Noizbait deklaratu zuen Iñaki Salvadorrek Mikel Laboa bezalako kantari espezial bati ez zitzaioela justizia egiten, eta berak hartu du lan hori azken urteotan. Piano, sinte eta akordeoiz hasi zen ordurarte laboazale puristentzako ukiezina zen haren gitarrari laguntzen, eta bere betiko kanten ertzak gozatuta entzun genituen. Kantaldietan «Izarren hautsa»rekin egin zuen legez, oraingoan Bertolt Brecht-en «Gaberako aterbea» jantzi du, nahiz eta Laboa bilutsirik maite zutenak haserretuko ez diren. Kanta zahar horren birmoldatzeaz aparte, Iñaki Salvadorren pizua oraingoan aurrerago doa, eta moldaketetan saxo, baxo, tronpeta, txelo eta beste sartzeaz gain, Thelonius Monk-en pieza bat erantsi dio, jazz pasarte estandar bat. Guztia Arizkongo bertso herrikoi batzuekin eta Joseba Sarrionandia eta Bernardo Atxagaren hitzekin osatua. Kanten funtsean Laboaren frase laburrezko estilo aldaezina aurkituko duzu. Eta azalean Zumetaren sinadura bezala, diskoan «Lekeitio» bat ezin zen falta Mikelen hamabigarren zenbakidun honen seilutzat ageri den «Cherokee»; ez dakit zein jainkozaletasun bitxiren poderioz Mikel Laboari bakarrik permititu dakioken estrabagantzia bihurtu da nere ustez «Lekeitio» saila, nahiz eta oraingoan lekeitiar, zuberotar eta cherokeen solasez hornituak agertu. Bernardo Atxagak 84ean «El Pais»en publikatutako artikulua haren aitzakiak ez dio horri esnobismorik kentzen. «Round Midnight» batetik eta «Lili bat» bestetik, tartean «Antzinako bihotz» dela, zehazten ari da Mikel Laboaren joera berria, Iñaki Salvadorren eskutik.

ARTASO

Kontzertuak



● **Oskorri** taldeak kantaldia eskainiko du urriaren 28an Mendaron, Trinitateko Ermitan, gaueko 10,30etatik aurrera. Azaroaren 3an aldiz, ostirala, Altzako polikiroldegian arituko dira, ordu berean.

● Azaroaren 3an, ostiralez, **Txanbela** folk taldeak kantaldia eskainiko du Mallabiako frontoian, gaueko 10etatik aurrera.

● 'Irubide' Institutoko Abesbatzak saioa eskainiko du **Zubiri** herri nafarrean urriaren 29an, igandez, '89 Udazkeneko Jira Bira' ekitaldien barne. **Sunbillan** aldiz kontzertuan arituko da 'Nafarroako Akordeoi Orkestra'.

● **Imanolek** kantaldia eskainiko du Arrasateko Amaia Antzokian urriaren 28an, larunbatez, gaueko 10,30etatik aurrera.

